

ZM

ZORROTZ MORROTZ

69. ZBKIA 2021eko MAIATZA

PAKO GARCÍA

HAINBAT MUSIKA TALDETAKO GITARRAJOLEA

TXINBOTARRAK PILOTA-TAILERRA

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com



Kutxabank etxe aseguruua



**Ez egon zain eta...
ekarri zeurea ere!**

Dena Kutxabanken baduzu, hobe zuretzat.

Sustapenaren indarraldia kontratazioetarako: 2021eko apirilaren 13tik 2021eko ekainaren 12ra arte. Kutxabank Aseguradora Compañía de Seguros y Reaseguros SAU (Kutxabank Aseguradora) izeneko sozietateak aseguru-hartzaileari emandako hobari komertzial gisa, kontratatutako etxe-asegurua lehenengo urtean ordaindutako primaren %50 ordainduko diogu, betiere aseguru horrek Kutxabanken ezein hipoteka-maileguren interes-tasetarako hobaririk ematen ez badu. Aseguruua 3 urtez kontratatuta edukitzeko konpromisoa. Kutxabank etxebizitza-aseguruak, Kutxabank Aseguradora, Compañía de Seguros y Reaseguros SAU izeneko sozietatearenak dira. KUTXABANK da Kutxabank Vida y Pensiones izeneko sozietatearen banka-aseguruetako operadore bakarra eta haren baimena dauka Kutxabank Aseguradora izeneko sozietatearekin eragiketak egiteko. Gainera, Artekariaren Erregistro Administrazio berezian inskribatuta dago C0654A95653077 zenbakipean. Kutxabank SA. Kale Nagusia 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan izena emanda. Tomoa: 5226; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa 1; Inskripzioa: 1.



Udalarekin izandako bileraren laburpena

Martxoaren 22an bilera bat izan genuen alkatearekin eta hainbat zinegotzirekin, eta auzoarentzat garrantzitsuak diren gaiak jorratu genituen. Hau da landu genuenaren laburpen txiki bat:

- **FEVERen geltokia lurperatzea** lehenatasuneko kontua da gurtzat. Jakinarazi zigutenez, Ekonomia Ministerioarekin adostuta dago hitzarmena sinatzea, eta maiatzean sinatzea espero da.
- **Burteñoako zubiaren espaloietako baten estalkiari** dagokionez, ez dago aurrera eramateko inolako borondaterik.
- **Euskal Errotak eraikina** mantentzea linbo administratibo eta politiko batean dago. Egoera hori konpontzen ez bada, eraikinararen degradazioa gero eta handiagoa izango da, eta auzoaren eta Bilbo osoaren historiaren ikur bat ereriko da.
- **SADERi** dagokionez, erakundeetatik inork ez du azaltzen zenbat denbora gehiago jasan beharko ditugun enpresa honek sortzen dituen usain txarrak eta kutsadura.
- **Auzo-etxe berria** eraikitzea errealitate bat izan liteke hurrengo legegintzaldian. Oraingoaz, proiektua definitzeko fasean dago.

Behin baino gehiagotan esan dugun bezala, auzoa hobetzeko lan egitea ez da lan erraza. Baina ez gara horregatik adoregabetzen, guztiz kontrakoa: zuekin guztiekin egon nahi dugu borrokan jarraitzeko.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz

Zorrotzako kultur aldezakaria
69. zenbakia. 2021eko maiatza

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: zmorrotz@gmail.com

 facebook.com/ZorrotzMorrotz

 [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- | | |
|------------------|----------------|
| - Ibai Barrios | - Naroa Peña |
| - Ainara García | - Iratze Pérez |
| - Igor Gutiérrez | - Zuriñe Vila |
| - Aitor Marín | |

Zuzenketak: Iñigo Ramírez de la Piscina

Langutzaileak:

- | | |
|--------------------|----------------|
| - Karlos Rodríguez | - Asier Urkiza |
| - Manu Cobo | - Jon Puente |



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukaren erantzule bakarra



Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86



Tel. 94 441 62 75



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata IO

AUPA ATHLETIC

LASTER

**Elektrizitatea
elektronika**

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOA
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.elektricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013



Kale antzerkiko hainbat emanaldiak jasoko ditu Zorrotza Clown XII. jaialdiak maiatzaren 6tik 8ra Azoka plazan

Zorrotz Morrotz

Aurtengo *Clown Zorrotza* kaleko programazio eszenikoa Maybe a Company euskal eta greziar konpainiak zabalduko du maiatzaren 6an, ostegunean, arratsaldeko 18:30ean “*Tres sure*” obraren aurrestrenaldiarekin. Antzezlan honetan bi pailazok misio bat daukate: antzokia garbitzea. Agertokira iritsitakoan, ordea, publikoa bertan dago. Eta orain, zer? Euren presentzia azaldu behar dute. Ordubete beranduago, Martula Klown Fem taldeak “*La Modern*” obra antzetzuko du. Salustiana Sánchez emakume aparta da. Ispilu majikoa-

rentzat lana bilatzen dabil, amaordeak kale gorrian utzi baitu. Salustianaren samurtasunari esker, berarekin eta bizitzaren zentzugabekeriarekin identifikatuko gara.

Hurrengo eguneko programazioa Granadako Dimitri taldearen “*The Legend*” lanarekin hasiko da ostiraleko arratsaldean. Zirkuaren testuingurua aitzakia hutsa da, umore absurdo, xalotasuna eta mugarik gabeko ergetasuneko obra honetako pertsonaia hau lanean ikusteko. Honen ostean, Markeliñe euskal taldeak “*Psike*” ikuskizun bizia aurkeztuko digu. Ikusizko narratibaren, ahots-jolasen, dantzaren eta abestiaren bidez, pertsonaia duen gatazka eta neurosi espazio iraunkor hori islatzen da, umoretik eta emoziotik garatuta.

Larunbatean bukatuko da aurtengo Clown Zorrotza jaialdia, goizez eta arratsaldez binaka banatutako beste lau ikuskizunekin. Goizean Sarini Zirko eta Sinvergüenzas Exprésate euskal taldeak airtuko dira hurrenez hurren eguerdiko 12:30ean hasita. Sarini Zirkoren “*Txoriak txori*” ikuskizunak lengoia unibertsal, poetiko eta dibertigarria dakar. Emakume batek, bakarrik bere zoramenean, zoramen inuzentea, amets eta hegaz egiten lagunduko digu, txoriek buruan egiten duten legez. Ondoren, “*Lo que me sale de la concha*” aurrestrenatuko du Sinvergüenzas Exprésate taldeak. Bertan, “*Maskorraren magoa*” deritzen emakume batek magia-ikuskizun harrigarri bat egin gura du, baina gauzak ez zaizkio espero bezala irten. Maskor bat itsaso bihurtzearen truko handiak irentsi egin du, benetan irentsi ere, eta itsasoaren jainkosa bihurtu.

Arratsaldean, Intujai Teatro euskal taldearen *txanda izango da* arratsaldeko 18:30etik aurrera “*Bomba bat naiz*” antzetzeko. Pertsona bakarreko antzezlan. Hemen, Bea Larrañaga ikusiko dugu, eskuak orean dituela, gozo-denda oso berezi batean. Ordubete beranduago Catalunyako La Industrial Teatreraren “*Naúfragos*”ek itxiera emango dio aurtengo programazio eszenikoari. Inoiz naufragu sentitu diren bidaiarientzako omenaldia da antzezlan hau. Eguneroko naufragioentzako keinu bat, umoretik eta txikitasetatik.

Supersurraren aurkako bizikleta martxa egin dute, Zorrotzatik abiatuta

“Ampliación Supersur Ez” plataformak deituta 60 lagun inguruk parte hartu zuten apirilaren 17an egindako mobilizazioan. Goizeko 10.30ean hasita Zorrotzako Azoka plazatik, Abusu auzoan bukatu zen martxa Bilboko hainbat auzotatik ibili ondoren.

Bolintxu ibarrean eragiten dabiltzan kalteak salatu nahi izan zituzten antolatzaileek martxa horretan, eta inbertsio publikoa beste lehentasun batzuetara bideratu behar dela, hala nola “osasungintza, zaintza edo hezkuntzara”.



Auzo Elkarteak hainbatetan eskatu ondoren, azkenik Udalak hurrengo autobusa iritsi arte geratzen den denbora adierazten duen markatzailea instalatu du, Zorrotza Kastrexana errepi-deko 8. zenbakiko Bilbobuseko geltokian.

Martxan da Zorrotzako XXIV. Ipuin Lehiaketa

Iaz pandemiak eta osteko konfinamenduak Zorrotzako Euskal Txokoak urtero antolatzen duen ipuin lehiaketaren hogeita laugarren edizioa bertan behera uztera behartu ondoren, aurtun maiatzaren 22ra arteko epea dago ipuinak aurkezteko.

Beti bezala, bi kategoriatan banatuta dago lehiaketa: 12 urtetik beherakoak eta DBH eta Batxilergoko ikasleak, eta multzo bakoitzarentzat bi sari eder jasoko dute irabazleek. Animatu eta parte hartu!

ehbildu

egiteko
beste
modu bat



ASKABIDE
kultur elkartea
Zorrotza



Tapia Sobrino y Cia. Chimbo lantegia (II)



Aurreko alean Jabonera lantegiaren inguruan ibili ginan. Orain Victor Tapiaren esaugarri batzuten finkatuko duguz begiek.

Manu Cobo

Angel Tapia eta Asuncion Buesaren semea izan zan, biak Arabako Guardia (Nafarroako Santxo VII.nak “el fuerte” harresitutako herrie) herriko familie onekoak. Bigarren karlistadan (Guardiak guda horretan ardura handie zeukon) gurasoak eta Victor Bilbora etorri ziran, Jose Maria Tapia Ugarteren etxera. Han sartu zan osabagaz negoziolan.


Hirurogeitamar hamarkadan sortutako Tapia Jabonera, 1893.ean Tapia y sobrino eta, azkenean, Antigua jabonera Tapia y sobrino (1902) , gorkada itzela egin eban eta 1906an Txinbo patentea lortu eban.

Produktu honi esker, XIX. mendearen amaieran eta XX. hasieran hanbeste entzuntz dogun, Bizkaiko industria kapitanean artean sartu zan, fortuna erral-

doiak egiten; baie ez beste batzuek egin zuten arloetan, mehatzetan, metal industrian, untzioetan... baizik eta Txinboagaz eta XX. mendearen lehenengo erdikadan, Bizkaiko lehenengotariko enpresarioa izan zan; eta sartu zan Bilbaina elkartean, komertzio ganbaran, Negurin eraiki eban txalet ederra

eta Guardian Jauregitxo bat eraiki eban ere, udaro joaten zala hara. Eta industrialak zeukaten oihutari jarraituz, politikan sartu zan ere, hasieran “partido liberal de Vizcaya” sortzaiteriko bat izanda (1910) eta gero, “primo de Riveragaz”, diputatue izanda “Union patriótica de la diputación provincial de vizcaya”n. 1921tean “Banco de Vizcaya”n sartu zan, administrazio kontseiluene kide izanda, 1947rarte, bere osasun arazoak larriztera egin zirela.


“Accion social católica”ren ideoian ere parte hartu





Jabonerako langileak kargaderoaren pean

eban, eta horrelako ekintzetako hiru ataletan sartu zan, etxebizitza, irakaskuntza eta osasuna. Eraiki ebazan, bere langilentzako, Jabonera langilen etxe taldea (auzoan), Guardiako "Victor Tapia" eskolak eraikitzeko diruz lagundu eban (primo de rivera garaian biak) eta Santa marina ospitalean tuberculosis gaitxotutako umeentzako Tapia pabiloia. Diruz lagundu eban ere Basurtuko ospitalean eta Gortizenean.



Lantegian izandako sutea, 1910eko agorriaren 28an

Behar filantropiko hauetan ez zan bakarrik egon baizik eta beti egon zan bere emazteaz lagundute, Dolores Sainz Isasi, 1903an eskunduo zirela. Victor hil zanean, Doloresek Fundacion Victor Tapia sortu eban, Bilbao Bizkaia bankuen akziodun handi bat izande ta Iberdrolan goiko akziodun bihurtu zala.



Gaur egun Txinbo marka eta egoitza nagusia Bilbon mantentzen dabe baie produkzioa beste empresa bati erosten dautsie.

Txinbo txorie

Txori hau eltxo-zomorro jalea da eta ibai alboko Tamariseta (zuhaitz mota bat) bizitzea gustetan jako. Oso arrunta da ibai ertzetik kanpo, inguruen dagozan baratzetan.

Garai baten, Bilbo baratz bat zela garaian (duela ez hanbeste, kale nagusia eliptikatik aurrera baratzak ziran eta Deustu ea osoa ere....gure amak esagutute....) Bilbokoak heizten ebiezan, okela ona eta goxo dekotelako, handik Bilbokoei Txinboak ezizena imini eutsiela. Auzoan Tamaris asko egon dira beti ibai ertzetan, beraz txori hau beti egon da auzoan bizi, geu baino lehen...

ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

Afariak ostirala
eta larunbatetan
Etxeko berezitasuna:
katxopoa.
Telefonoa: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA

“ Madrilen aisialdirako aukera izugarria izan arren, hiriburuko zoramena baino nire inguruko mendiak nahiago ditut ”

ALBERTO JEREZ

Bizitokia: Alcalá Meco (Madril)

Noiztik: 2015. urtetik.

Adina: 39 urte.

Lanbidea: Produkzio koordinadorea transformadore lantegi batean.

Baldintzengatik kanpoan dabilen euskalduna sentituko eta izango da Alberto. Hasierako asmoa Bizkaian geratzea bazen ere, Alcalá Mecon lanean hasi eta gustura dago bertan madrildarra den bere bikotekidearekin batera.



Testua: Aitor Marín

Nolatan eta zergatik heldu zinen Madrilerara?

Nire bikotekidea Alcalá de Henaresen bizi zen. Hasierako asmoa Bizkaian bizitzea bazen ere, lana dela eta Madrilen geratu ginen.

Zein da zure ogibidea bertan?

Ezagun baten bidez transformadore lantegi batean hasi nintzen haizagailuekin lanetan. Orain muntai-koordinadore zereginetan nabil. Oso pozik nago hemen lanean.

Madrileko herri batean bizi zara. Askotan joaten zara hiriburura edo Alcalan bertan moldatzen zara aisialdirako?

Orain, pandemia dela eta, ez gara herritik askotan mugitzen. Lehen noizean behin joaten ginen Madrilerara, baina egia esan ez dut oso gustuko: jende gehiegi dago, izugarriko zoramena... Hiriburuko jendetza baino, txakurrarekin ibili eta nire bikotekidearekin mendi-joan nahiago.

Bertako bizimodua eta gurea ezberdinak direla esango zenuke?

Bizimodua ez da hain ezberdina, baina ohiturak eta kultura bai. Ez ditut hemengo tradizioak sakontasunez ezagutzen, baina kultur eta tradizio nahasketa oso handia dago. Madril migrazio-gune oso handia da eta hemen leku guztietako jendea elkartzen baita. Gure kasuan ordea ohiturak eta kultura oso sustaituak ditugu gure egunerokoan.

Madrildarren ezaugarriak nagusia aipatu behar bada, zein da zure ustez?

Oro har atseginak dira eta oso azkar onartzen dute kanpotarra. Euskaldun mordoak dago Madrilen.

Zer da Madrilen gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gehien gustatzen zaidana, orain aipatu dudana: herritarren jarrera. Gutxien gustatzen zaidana aldiz, naturarekiko dagoen harreman

eza. Mendi eta leku ugari dago, edertasun handikoak, baina zikinkeriz beteak dituzte, kutsaduraz josiak... Bere ingurunearekiko, oro har, lotura gutxi dutelakoan nago.

Aisialdirako aukera anitz dago Madril bezalako hiri handietan. Zerbait aipagarria?

Kulturalki izugarria da. Zinema eta antzerki aretoak, kontzertuak, ekitaldiak, merkatuak, ... nonahi. Parranda bila bazatoz, hiriak ez du lorik egiten: uneoro tabernak, lokalak, edozein motatako ekitaldiak... Orain zoritxarrez pandemiak ohiko bizimodua gelditu du, baina normalean giroak ez du etenik Madrilan.

Inguruetatik bidaiatzeko eta ezagutu beharreko zerbait?

Pertsonalki asko gustatzen zait Guadarramako mendilerroa, Somosierra, Pedriza, Patones, Alcalá de Henareseko zerroak... Eta zalaparta bila bazatoz, Madrilgo Sol, Latina, Vallecas auzoko tabernak, Madrilgo hiltegia, Retiroa, Debod templua...

Madrilgo Gobernurako hauteskundeak dira egunotan. Madrilgo fobia handia dagoela Estatuko beste herrialdeetan aipatu dute agintari batzuek. Horrela al da?

Ez dut uste madrilarr biztanlegoarekiko inongo fobia dagoenik. Baina Madrilgo agintariak eroso sentitzen dira biktimizazioan eta irabazi politikoak lortzen dituzte horrekin. Aski ezagunak ditugu gure herrian eta Katalunian egindakoak, eta erasotzaile diren arren, biktimatzat saltzen dute haien burua... Errazagoa da Madrilgo fobiak asmatzea beraien kudeaketa kaxkarra aitortzea baino.



Eta hemen gurean zenuen guztietatik, zeren falta sumatzen duzu gehien?

Guztia. Lagunak, senideak, kultura, ohiturak.... Beti izango eta sentituko naiz euskalduna, naiz eta baldintzengatik kanpoan ibili.

Askotan bueltatzen zara Zorrotzara?

Pandemia dela eta ez naiz bueltatu 2020ko irailetik. Baina lehen, gutxienez hilabetean behin joaten ginen.

Berriro gurean bizitzeko asmoa al duzu?

Orain lana dela eta ondo gaude hemen, baina etorkizunean gure asmoa bueltatzea da.

cafe txinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

**Regalos
Omega**

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefona: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefona: 94 442 17 12

TXINBOTARRAK PILOTA-TAILERRA

Kolpez kolpe, gure kirola sendotzen

ZORROTZA
1987-2017

Testua eta argazkiak:
Igor Gutiérrez

Dela eskuz dela palaz, entrenatzaile baten gidaritzapean, Txinbotarrak Zorrotzan antolatutako pilota-tailerrean aritzen diren zazpi haur pilotari kolpeka ikus ditzakezu astelehen arratsalde batean auzoko frontoitik igaroz gero. Kultura eta kirol jarduera erabat kolpatuta dauden pandemia garai hauetan, benetan ederra horrelako ekimenekin topo egitea.

Pandemiak gure kultura eta kirol jarduerak hankaz gora jarri dituenotan, neguko eguzkia bezain gozosa da horrelako ekimenekin topo egitea. Astelehen arratsalde batean auzoko frontoitik igaroz gero, zazpi haur pilotari kolpeka ikusiko dituzu, dela eskuz dela palaz, entrenatzaile baten gidaritzapean. Txinbotarrak Zorrotzako Konpartsak antolatutako pilota-tailerra dugu, jadanik hiru urteko ibilbidea daukana.

Txinbotarrak Konpartsak 2017an jarri zituen ofizialki martxan auzotarrei irekitako kultura-tailerrek. Hasiera batean musika-tailerrek bakarrik eskaini baziren ere, laster pilota-tailerra ere batu zitzairen. Tailerron helburua euskal kultur adierazpenak auzoan bultzatzea denez gero, ez da harriztekoa frontoia

berritu bezain pronto hura martxan ere jartzea. Izan ere, pilotalekua estali gabe genuenean, eurik ez zuen horrelakorik egiten uzten.

Zazpi haurrek osatzen dute pilota-taldea, 10-17 urte bitartekoak, tartean neska bakarra. Astelehen guztietan 17:30ean frontoian ibiltzen dira. "Hasieran eskuz ikasi zuten eta orain palarekin hasi dira", diosku Iker Gordon entrenatzaileak. Bi eskuekin trebatzen ikusi ditugu eta bakarrik zein taldeko ariketetan, nork bere lekua ondo gordeta. Iaz, urtarrilean, tailerreko haurrek pilota-eskolen topaketa batean parte hartu zuten, Miribillako frontoian eta horretarako propio egin zuten argazkian jantzita daramate elastiko morea.



Koronabirusagatik hainbat aldiz egon da tailerra etenda, eskola-kirolari dagozkion neurrien arabera. Hala, 7 jokalariz izanda, ezin dira denak batera aritu, muga 6 kirolarikoak baita. Bi taldetxotan banatu beharra daukate, 17 urteko Ramon bigarren entrenatzaile jarrita. Eta noski, maskararekin.

Hurrengo ikasturteari begira, kirol eta kulturaren egoerak hobera egingo duelakoan, segi bezate kolpez kolpe gure kirola sendotzen!

Koronabirusagatik hainbat aldiz egon da tailerra etenda, eskola-kirolari dagozkion neurrien arabera. Bi taldetxotan banatu beharra daukate, 17 urteko Ramon bigarren entrenatzaile jarrita. Eta noski, maskararekin.



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

*Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua*

PAKO GARCÍA:

Beste batzuen artean,
Bajos Fondos eta Trapala
musika taldeen gitarrajolea

“ Musika talde
bat osatzeko
orduan,
garrantzitsua
izaten da
pertsonaren
izaera ”

Beste batzuen artean Trapala eta Bajos Fondos taldeetako gitarrajolea eta musikazale amorratua dugu Pako. Auzoko rock mugimenduko aitzindariak izanda bi talde hauek berriro elkartu dira 2019an, eta 1993an sortutako Mercado Negro taldeko kidea ere bada hasieratik. Desagertutako Cuestión de costumbres eta Papa Blues Band taldeetako kidea ere izan da. Txikitatik izan du musikarako grina. Iragana eta geroa bat eginda hurrengo lerroetan.





“**“** Ia 50 urteren ondoren Udalak behingoz auzoko jendeak disfrutatzeko lokal eroso bat prestatu du **”**”

Nola eta noiz agertu zen musika zeure bizitzan?

Gogoratzen dut hasieran etxeko irradian soilik entzuten genuela musika. Txikitatik zerbait berezia izan da nire bizitzan nahiz eta eskolan “Cara al sol” abestu behar kar kar.

Gitarrajolea zara. Zergatik hautatu zenuen musika tresna hura eta ez beste bat?

Momentu hartan gitarra (espainiarra, noski) instrumenturik komun eta arrazoizkoenetariko zelako. Tonboletan ere, papinez aparte, sarietako bat gitarra izaten zen.

Eta noiz heldu zitzaizun musika talde bat sortzeko grina?

Auzoan zegoen giroagatik, musika maitatzen genuen batzuk Salón de Amador tabernan elkartzen ginen eta bertan zegoen makina batean Led Zeppelin, Creedence, Free eta abar entzuten genituen. Egun batean, “Un rayo de sol” entzun eta gero Led Zeppelinen “Black dog” abestia hasi bezain laster mundu berri baten atek zabaldu zitzaizkidan parez pare. Gainera, ia larunbat guztietan Santurtzira joaten ginen Las Matinales del Youngs saioaren barruan Lone Star, Flamenco, Storm eta garai hartako taldeak ikustera. Horrela hasi zen guztia.

Ez zara musika talde bakarreko gizona... Zergatik?

Ez, egia esan. Alde batetik bluesa, musika beltza ere deitzen zaiona oro har asko gustatzen zait, baina baita rocka ere bai. Bestalde, jotzen dudan taldeetako jendearen izateko moduagatik... Oso gustura nago beraiekin, asko maite ditut.

Nola antolatzen zara hainbat proiektutan aritzeko?

Parte hartzen dudan talde guztietan abestiren bat egin dut. Ez daukat arazorik egun batean Trapalarekin aritzeko eta beste egun batean Bajos Fondos-ekin.

Trapala eta Bajos Fondos auzoko talde historikoak aipatu dituzu eta bietako kide zara. Hainbat urtetan jo gabe egon ostean, 2019an berriro itzuli zineten. Kontaiguz nola sortu zen elkartzeko ideia.

Agian arrazoi nagusia, ia 50 urteren ondoren Udalak auzoko jendea disfrutatzeko lokal eroso bat prestatu duela izan da. Hori dela eta Alberto, Jony eta hirurok aspaldiko kideak harremanetan jarri ginen eta horri esker hemen gaude Zorrotzako beste talde batzuekin musika egiten eta abesti zahar zein berriak osatzen.



Pako García-ren argazkiak ibilitako talde guztietan. Ezkerretik eskuinera: Trapala taldea; Pako gitarra jotzen Bajos Fondos taldearen emanaldi batean, eta Cuestión de Costumbres taldearen kontzertua. Bigarren ilaran, Bajos Fondos zuzenean Deustuan, Papa Blues Band kontzertu bat Zorrotzan eta Mercado Negroren kontzertu baten kartela. Beheko argazkian, Trapala taldea gaur egungo entsegu batean.



“ Musika eta auzoari dagokionez, 80ko eta 90eko hamarkaden falta dut ”

Bajos Fondos taldean, adibidez, jatorrizko taldekideak batu gara, baina Trapalan, Luis Ruíz eta Ismael García falta dira, zoritxarrez gure artean ez daudelako.

Zure anaiarekin batera aritzen zara talde horietan... Kontaiguzu.

Bai, baxua jotzen. Lehen esan bezala, Luis eta Ismael ez daudenez, Trapala ezin zen jatorrizko kideekin osatu eta nire anaia Jon hasi zen gurekin. Nahiz eta bere erara jo, hor dago gurekin abesti berriak egiten. Taldekidea eta anaia, biak batera. Hunkigarria benetan.

“Rockaren hazia Zorrotzan” antolatu da duela gutxi Auzokan. Bertan, besteak beste, aipatutako eta kide zaren hainbat talderen materiala bildu da. Zer iruditu zaizu erakusketa?

Oso inportantea iruditzen zait. Gaur egun, batzuetan ezer ez dagoela sumatzen dut, Zorrotza auzo tristea dela. Baina erakusketak, lehen eta orain egindakoa adierazi eta musikaren bidez auzoa bizirik dagoela islatzen du.

Pandemia honetan kulturak astindu gogorra hartu du. Zein da zure iritzia honen gainean?

Era batean zein bestean kultura beti da alderdirik kaltetuena. Etsigarria da beste edozein gauzetarako mugitzen den diru kopurua eta gure arloa azkenengo tokian ikustea.

Nola aldatu da egoera azken urteetan? Zerbaiten falta somatzen duzu?

Oro har, musika eta auzoari dagokionez 80ko eta 90eko hamarkaden falta dut. Ezkorra naiz alde horretatik, dena txarragora joango dela uste dut.

Zer esango zenieke talde hasiberrientzako gazteei?

Orain den dena haien alde daukatela uste dut. Auzoan daukagun lokala batetik eta bestalde internet zein musika dendak. Garrantzitsuen gogoia edukitzea eta beti aurrera ateratzea da. Talde bat osatzeko orduan pertsonaren beraren izaera ere kontuan eduki beharreko faktorea da.

Bukatzeko gertaera bat ezagutu nahi genuke...

Berrogei urte pasa eta gero zaila, kar kar. Dena den, horra doa: Trapala taldearekin Santurtziko jaietan gogoratzen dut saioa amaitzean tipo bat gerturatu eta "hi, motel, abestiren bat jotzen utzi!". Taldearekin hitz egin eta baiezkoa eman orduko hiru tipo igo eszenatokira eta bat-batean "Mucha policía, poca diversión" jotzen hasi ziren. Eskorbutoakoak ziren! Hortik aurrera askotan egon ginen elkarrekin.



LABURREAN

“Nire bizitzan egunerokotasuna da musika niretzat”

Musika talde bat?

Led Zeppelin.

Musikari bat?

Paul Kossoff, oso gazte hildako eta askotan ahaztutako musikaria.

Ikusitako kontzerturik onena?

Rory Gallagherek musikari irlandarrak bere taldearekin 1986ko urtaileran. Lekeitioko Santi Brouard pilotalekuan.

Diska bat?

Neil Young-en “Rust never sleeps” (1979).

Zer da zuretzat musika?

Egunerokotasuna.

Lápices
LIBURVENDENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

STAZ
OKINDEGIAK

Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

DETAIL Car
TU COCHE - TU IMAGEN
Cuidado y limpieza de vehículos sin agua

Ibilgailuen Garbiketa Ekologikoa

✓ URIK GABE ✓ ESHUZ ✓ ARGIZARIAREKIN

Fernando García Otero
Parking La Alhondiga ☎ 675.185.457
✉ alhondiga@detailcar.es

www.detailcar.es

Maiatzak 6 osteguna
CLOWN ZORROTZA kale antzerkia
18:30 Azoka plazan

Maybe a company: "Tres sure"

19:30 Azoka plazan

Martula: "La modern"

Maiatzak 7 ostirala
CLOWN ZORROTZA kale antzerkia
18:30 Azoka plazan

Dimitri: "The legend"

19:30 Azoka plazan

Markeliñe: "Psike"

Maiatzak 8 larunbata
CLOWN ZORROTZA kale antzerkia
12:30 Azoka plazan

Sarini zirko: "Txoriak txori"

13:30 Azoka plazan

Sinvergüenzas exprésate:

"Lo que me sale de la concha"

18:30 Azoka plazan

Intujai Teatro: "Bonba bat naiz"

19:30 Azoka plazan

La industrial teatrea: "Náufragos"

Maiatzak 18 asteartea
Liburu aurkezpena idazlearekin:
16:30 Lápices liburudendan:

José Ángel García López:

"El monje y la montaña".

Maiatzak 20 osteguna
Liburu aurkezpena idazlearekin:
16:30 Lápices liburudendan:

Jon Cabrera:

"Fantasmas en la trinchera".

ekainean. (eguna sare sozialetan zehaztuko da)

Liburu aurkezpena idazlearekin:

Lápices liburudendan:

Afonso del Río:

"El lenguaje oculto de los libros".

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeKo hurrengo agendan (uztaila-abuztua) iragartzeko, **zmorrotz@gmail.com** helbidera idatzi ekainaren 15a baino lehen.


Turista klasea

Kattalin Miner.

Susa. 2020. 120 orrialde.



Hendaiara joan, Pariserako trenari itxaron. Baliteke gaurkoa izatea azken bisita. Eta oraindik ez zaizkio natural ateratzen talegoa bezalako hitzak. Batzuetan fribolo samarrak iruditzen zaizkio haien arteko elkarrizketak, ez dutelako politikaz hitz egiten, baizik eta pelikulez, liburuez, ametsez.

Uzkiari buruzko tailer batean ezagututako lagun txiletar batzuen etxean geratu zen lehenengo bisitan. Geroztik, ardo botilak hustu zituzten, "lagun" esan zioten elkarri, bizi zituzten biolentziak konpartitu. Baina haiei ez zien kontaktu muga gurutzatuta trenak hartzean sentitzen zuen izua, Charlie Hebdo-ren kontrako atentatua gertatu zenetik.

Adiskidetasuna, elkartasuna, norberarengandik erauzi ezin ditugun beldurrak. Kattalin Minerren bigarren nobelana.


Iheskide: "Tinko gurean"

(Autoekoizpena) 2020



Gaurko hegaldi musikalak Durangaldera garamatza. Izan ere, Iheskide taldeak diska berria plazaratu du. Aro berri honetan hirukote bihurtuta, 8 kantuz osatutako "Tinko gurean" diska zuzen eta gordina aurkeztera datoz. Lehenengo

entzunaldian irensten zaituzten horietakoa, abesti guztiak etenik gabe jasotzen dira. Punk rock eta hardcore doinu zorrotz eta era berean melodikoak tempo lasaigoekin nahasten dira. Rocka zainetan, punka izaeran eta borroka bihotzean. Horiexek dira Elorrio eta Abadiño artean mugitzen den power trio honen ezaugarriak.

Usurbilgo Higain estudioetan grabatu eta nahastu dute Haritz Harreguy teknikari sonatuarekin. Koruak indartzeko asmoz Des-Kontrol taldekoen laguntza izan dute. Zuzeneko emanaldiei begira landutako lana dela esan dezakegu, ordu erdira iristen ez dena. Letra iraulzailea, kritikoa eta gai pertsonalak ere jorratzen dituena. Diskaren azala buelta handirik gabekoa baina txukuna eta taldearen labelarekin. Musika kañero eta melodikoa gustuko duzuen horientzat gomendagarria. Eta ezagutzen ez duzuen horientzat beraien musikara hurbiltzeko aukera ezin hobea.

Kuiatxo ali-olirekin

Osagaiak 4 pintxo egiteko: Arrautza bat, irina, olio, gatz, kuiatxo, otarrainxkak, ali-olia eta ogia.

Lehenik eta behin, 12 xerratan moztu kuiatxo. Geroxeago, gatzarekin ondu eta irinez eta arrautzez pasatzen ditugu. Zartaginean olio bota, eta sutan jarri eta gero, frijitzen dugu.

Hurrengo pausoa ogia moztea da, eta bere gainean 3 kuiatxo xerra jarzea. Honen gainean, otarrainxka (zurituta) ipini, eta zotzarekin utsiko ditugu. Bukatzeko, ali-oli pixka bat botako diegu gainetik apaintzeko eta zapore gehiago emateko.



Zailtasun maila: Erraza.
Prezioa: 1,50 euro.



JAI ALAI TABERNA

Abaro estrata, 12
48013 Zorrotza - Bilbo

Ordutegia:
Covid-19 murrizketak irauan bitartean:
Astelehenetik igandera
12:00etatik- 20:00ak arte



Vía gráfica

viagraficzorrotza@gmail.com

DisiNua

AUTO ESKOLA
KAIKU



Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfn: 94 427 88 10

Jai-Alai

kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59



Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!

Poesia eta hiria

200 urte bete dira Charles Baudelaire poeta frantziarra hil zela. Nekez esan daiteke ezer berririk seguraski aro garaikideko lehen poeta izan zenari buruz. Poesiari gaur egun ematen diogun zentzuak asko zor dio Baudelaireri, poema osotasun organiko gisa ulertzea, esaterako. Baudelaire bakana izan zen, poesia idatzi ez ezik poesiaz, eta oro har, arteaz teorizatu ere egin baitzuen.

Baudelairengan, ordea, beste zerbaitek deitu ohi du arreta. Pertsonaiak berak. Esan daiteke paristarrak asmatu zuela pertsonaia artistikoaren figura. Bai, poeta madarikatua eta hori guztia. Bizitza gorabeheratsua, malapartatua, gehiegizkoa. Dandia. *Le bohème*. Horretaz gain, beste pertsonaia mota baten ordezkari gorena izan zen, flâneurrarena, hain zuzen. Hiriko ibiltaria dugu flâneurra, hankabiko urbanita behatzailea. Aldarraia da izatez, norabide finkorik gabe ibiltzea gustuko duenez, jendetza artean alai, azantza urbanoan pozarren. Egunerokoaren begiralea da, metropoliaren mugimenduaren kontemplazioan atsegin hartzen duena. Era berean, Walter Benjaminek zehaztu zuen egoera ekonomiko jakin batek ahalbidetzen zuela flâneurraren existentzia. Hau da, XIX. mende Erdialdeko Parisen, Frantziako Bi-

garren Inperioaren garaian, hiriaren antolamenduak herrari ibiltzea baimentzen zuela. Harrizko kalekxkak, plaza txikiak, kalezuloak eta barnebidetako, taberna ñimiñoak... Gai-nera, argiztapena kandela bidezkoa zen ia hiri osoan, argi elektrikoa oraindik asmatu gabea izaki. Erdi Aroko antolamenduari eusten zion hiriak, hitz gutxitan.

XIX. mendearen bigarren erdialdean Pariseko birmoldaketa urbanoari ekin zitzaion, Napoleon III.a eta Haussmann baroiaren eskutik. Lehengo kalekhen partez, etorbide zabalak eraiki zituzten. Igarobideak ere desagertzen joan ziren eta apurka-apurka gas bidezko argiztapenak gaina hartu zien kandlei. Prozesuak 1870eko Pariseko Komunarekin jo zuen goia. Errepresio latzaren ondoren, langile antolakuntza kaltetzea eta deusezteza zuten helburu neurri urbanistikoek. Kaleen zabalerak barrikadak egitea oztopatzen zuen. Horrez gain, langileak hiri erdigunetik periferiara bidali zituzten, espazioz masiboen bitartez. Hortaz, Baudelaireren poesiatik arazo urbanoetara. Zilegi bekit galdetzea: zer dira hiriak gaur egun? Zer da Bilbo? Nor(tzu)entzat egin dago? Arestiren poema hura gogoan: "Bilbaoko kaleak /gora eta behera/errekatik mendira/ batzuk artezak/gehienak zeiharrek..."

Asier Urkiza



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afixariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, kombinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



**ESKANTZA
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOIA +
KRISTALAK** GOI-
GAMAKoak

265€

Sustapena indarrean + 4,00 eserako eta
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarretaluxury
OPTICA

TXOKO FEMINISTA



Aurtengo Martxoaren 8an, gizarteak eta sindikatuek sektore feminizatuen duintasuna eta aitorza aldarrikatu zituzten. Ez da kasualitatea emakumeak izatea lan prekarioenak betetzen dituztenak; zaintza-ekin eta bizitzaren iraunkortasunarekin lotzen diren lanak, hain zuzen ere.

Erraza da zaintza langileak funtsezkoak direla eta beraiek gabe bizitza ezinezkoa dela esatea. Baina hau guztia praktikan jarri behar denean bukatzen dira erraztasunak: ez dira berez txarrak ziren lan bal-

dintzak hobetu, ez dira plantillak indartu lan osasuna ziurtatzeko, eta emakumeen lana aitorza sozial, politiko eta ekonomikorik gabe dago oraindik ere. Hau da, prekaritatea kronifikatu egin da sektore feminizatuetan: miseriazko soldatak, (asko 1.000 eurotik beherakoak), lanaldi partzialak, behin behineko kontratuak, hitzarmenik ez...

Horregatik, emakumeok zaintza lan guztien duintasuna, lan baldintza egokiak, soldaten genero arrakala deuseztatzea eta patriarkatuaren suntsipena lortu arte, borrokan jarraituko dugu.

Gora emakumeen borroka!

SALAKETA ARGAZKIA



Inoiz iristen ez den autobusaren zain

Zorrotzako Auzo Elkarteak, Basurtu eta Altamirakoekin batera, urte asko daramatza hiru auzoak lotuko lituzkeen Bilbobuseko linea bat eskatzen. Duela hiru urte baino gehiago, Mugikortasuneko eta Ingurumeneko zinegotziak agindu zuen egungo 28. linea aldatuko zuela Fray Juanen ibilbidea amaitzeko, Zorrotza Kastrexana eta Zazpi Landa igarota. Hala ere, bizilagunok denbora asko daramagu geltokian... eta agindutako autobus hori ez da iritsi.

ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ aldizkarian!

Euskara sustatu Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa: zmorrotz@gmail.com

MESÓN LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



Matrikulatu zuen haurra auzoko haurreskolan!

Badira 10 urte Zazpilandako haurreskolak bere atea zabaldu zituela. 10 urte Zorrotza auzoko haurtxoak hezten. Baina hauek hezi bakarrik ez, haurtxoen sasoi berezi eta garrantzitsu horretan familiei laguntza ematen ere saiatu da haurreskolako hezitzaile taldea. Familientzako zerbitzu eta laguntza garrantzitsua bihurtu da Zazpilandako haurreskola, haurren eta familien ongizatean laguntza emateko balio handiko tresna.

Urtero bezala matrikulazio epea zabaldua dago hurrengo ikasturterako, aukera berria familientzat haurreskolara hurbiltzeko eta ezagutzeko. Haurreskolan haurrak 16 aste betetzen dutenetik has daitezke. Hurrengo kurtsorako matrikula daitezkeenak 2020 eta 2021 urtean jaiotako haurrak dira. Matrikula egiteko haurreskolarekin kontaktuan jarri behar da, eta handik igaro bete beharreko paperak betetzeko.

Bestalde, Zazpilanda haurreskolak bere atea zabalik ditu haurreskolako instalazioak eta bere funtzionamendua ezagutu nahi duten familia guztiarentzat. Familiak telefonoz kontaktuan jar daitezke haurreskolarekin, 94 439 92 73 zenbakira deituz. Hitzordua eska dezakete haurreskolara bisita egitera etortzeko. Horrela instalazio guztiak ikusi ahalko dituzte, bai gela guztiak eta baita Bilboko Udalak berrizatu berri duen goiko patioa ere. Gainera bisita aukera ona izango da familiek beraien galdera eta zalantza guztiak hezitzaileei helarazteko, ahalik eta informazio handiena lortzeko haurreskolaren funtzionamendua ezagutzeko, eta familien diru sarreraren arabera dauden kuota tarte desberdinen inguruan ahalik eta informazio zehatzena izateko.

Zazpilandako haurreskolak bere laguntza emateko prest jarraitzen du auzoko haurtxo eta familia guztiarentzat, 10 urte hauetan egin duen bezala. Haurren eta familien ongizatearen bila lanean, familia eta lanaren arteko kontziliazioa erraztuz, eta familien arteko elkarlana eta auzoko bizikidetzaren sustatuz. Zuen haurtxoa adin tarte honetakoa bada anima zaitzete gugana hurbiltzen eta haurreskola ezagutzen. Zuen zain gaude.

Zer dakizu? Zer jakin nahiko zenuke?

Bi galdera erraz hauekin Auzoka Komunitate Zentroak ekintza berri bat aurrera eraman nahi du.

Pandemiako egoerak komunitate partaide-tza geldiarazi egin du, eta Zorrotzan badakigu zelako garrantzia duten gure auzokideek.

Zer dakizu? Guztiok daukagu ahalmen bat, zer edo zer oso ondo egiten duguna eta hori gure albokoak aberasten ditu: koadrillako tortilla patatarik onena, ziza eta perretxikoen gaineko jakintza, mendi ibilaldiak egiteko erraztazuna, informatika edo hizkuntzen

trebetasunak,... Gure auzokideen jakintza hauek ondo bideratzea komunitatea aberas-teko aukera ezin hobea da.

Zer jakin nahiko zenuke? Gizakiok gure haz-kuntza prozesuan trebetasunak eta ahalme-nak handitzeko grinak lantzen ditugu, bizitza osoan zehar. Ikaste prozesua ez da baka-rrik ikaskuntza zentruetan ematen, bizitzan ikasten dugu. Eta ikasi nahi ditugun gauza horiek ikasteko aukera izango bagenu gure auzoan bertan? Gure auzokideekin?

Bi galdera hauek abiapuntutzat hartuta, gure auzoaren jakintzak eta ikasteko grinak az-tertu nahi ditugu, nolabait, gure auzokideei balorea emateko eta ikaskuntza prozesuak espazio ez formaletan emateko aukerak za-baltzeko. Adi egon kaleetan eta sare sozia-letan, berriak egongo dira eta!

 **auzoka**
KOMUNITATE ZENTROA
CENTRO COMUNITARIO

Zorrotza

aek

**21/22 aurrematricula zabalik:
%5 merkeago eta ordaintzeko epe gehiago
Gorde lekua!**

Prematrícula 21/22 abierta:
5% descuento y más plazos de pago
Reserva tu plaza!

**Zalbidea 7 • 94 441 49 20
zorrotza@aec.eus • www.aec.eus**



Iñaki

Ez nago batere ziur...
Behintzat Euskal Herritik
edo Estatutik
mugitu ahal izatea
espero dut!

— / Naroa Peña
eta Iratze Pérez

Covid19a eta oporrak:

Uda honetan
bidaiazteko baimena
izango dugula
uste duzu??



Gorka

Gutxi gorabehera
udako oporretan iaz
zeuden neurri
berberak
indarrean egongo
direla esango nuke.



Patricia

Orain arteko jarrerarekin
jarraitzen badugu,
ez dut uste.
Gustatuko litzaidake,
baina ez dut batere
argi ikusten



Nerea

Jendea oso nekaturik
dago pandemia egoeraz.
Aisialdia behar-behar-
rezkoa duelakoan nago.
Beraz bai, oporretan
joaten utziko digutela
uste dut



Marivi

Oso baikorra naiz eta
duela asko bidaia baten
erreserba egin nuen.
Beraz, ziur nago bidaiatu
ahal izango dugula.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



Bilbon euskaraz



Bilbao

▶ www.bilbaoeuskaraz.eus

iKasi
MiKasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa, ikastetxe publikoetan eta Zorrotzatik irten gabe

 **CEIP ZAZPI LANDA-ZORROZGOTI ILIHI**
Pinadia ebaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com

 **CEIP ZORROTZA-FRAN JUAN ILIHI**
Ikastalde ebaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net

 **ZORROTZA IHI**
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 428 01 36
📠 94 428 01 37
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

MAIATZA
2021
MAYO



XII.
CLOWN
ZORROTZA

AZOKA PARKEA / PARQUE DEL FERIA
(FRONTÓN)

EGUENA 6 JUEVES | BARIKUA 7 VIERNES | ZAPATUA 8 SÁBADO

NAHITAEZKOA DA INDARREAN DAUDEN BABES ETA HIGIENE-NEURRIAK BETETZEA.
NEURRI HORIEK WWW.BILBAOKULTURA.EUS WEBGUNEAN DAUDE JASOTA. BAITA ERE
NAHITAEZKOA DA MASKARA ERABILTZEA EMANALDI OSOAN.

ES OBLIGATORIO CUMPLIR LAS MEDIDAS DE PROTECCIÓN E HIGIENE VIGENTES,
RECOGIDAS EN LA PÁGINA WEB WWW.BILBAOKULTURA.EUS.

ASIMISMO, ES OBLIGATORIO EL USO DE LA MASCARILLA DURANTE TODO EL ACTO.



WWW.KULTURABARRUTIK.EUS

Bilboko Udalak antolatzen du
Organiza el Ayuntamiento de Bilbao
94 420 48 70 • cultura@bilbao.eus

#BilbaoUdalaberria2021 



KULTURA
BARRUTIK

B
Bilbao